



Beste kupeleko sagardoa

BIGARREN OLATUAN

Ez nekatu garai petral hau definitzeko hitzen bila. Hona hemen esamolde dotore askoa, garai-garaikoa, bizi duguna zer den adierazteko



GAIZKA LASA

Sábado, 31 octubre 2020, 08:02



Poz iturria lehortuta dauka aspaldian bere zorion burbuilatik burua atera eta inguruan zer pasatzen ari den jakin nahi duen hiritar orok. Kezkak, egonezinak, zantzu ezkorak eta zalantzaz betetako hodei ilunak besterik ez zaizkio etorriko. Hobe berriz ere punpuila barrura sartu eta bizipoza ematen duten gauza txiki horiei begira jarraitu. Behin Bernardo Atxagari Greziako poema arkaiko bat entzun nion: «Azeriak tranpa guziak ezagu-tzen ditu, baina trikuak jakin behar den egi bakarra». Babestu zure burua eta atera bizirik, esan nahi zuen. Bereaz ari zen, noski, kultura babesteaz, futbola bezalako pizti menderatzaile batetik. Ez zaio arrazoirik falta, nahiz eta niri futbola gustatu. Baina gera gaitezen trikuaren irudiarekin. Izan ere, azeria hor dabil. Ez da ikusten, baina hor dabil gure osasuna lapurtzeko prest. Izan gaitezen triku.

Arantzaz betetako bola horren barruan, zorionez, oraindik ere gauza dezente egin daitezke gure inguruan globalizazioaren mugikortasunaren behar handirik gabe. Sagardoa, esaterako. Honezkero sagasti gehienetako sagarrak bilduta daude, bakarren bat oraindik lan horretan badabil ere. Eta sagarraren bueltan zenbat hitz goxo eta bizipen pozgarri, Anjel Mari Peñagarikanok maisutasunez Tolosaldeko Atarian, 'kale kantoitik' erakutsi zuen moduan. «Heldu ziran sagarrak, bai gauza ederrak, hala zion amona zaharrak: umeak, onak bildu ta bota txarrak, utzi ustelak ta utzi tatarrak, bestela nola bete pitxarrak. Lan egin zuen tolareak, bai gauza dotoreak, bai zapaldu ere aleak ta lan ugari taldeak, hango zer-tzak ta hango baldeak. Hasi zen

txorroa, txorroak bete txarroa, txarroan apar arroa, ta parrillan dago katxarroa, kiloko txitxarroa. Hona hemen sagar mama, gure elikaduraren ama, ona dauka behintzat fama. Jendez bete Hernani, zenbat juerga ta armoni, haien tartean ni, ez al zaigu ba komeni, goxotasuna eman behar bizitza honi».

Azeriak tranpa guztiak ezagutzen ditu baina trikuak jakin behar den egi bakarra. Babes gaitzen gu ere

Orain inoiz baino gehiago, Anjel Mari. Burumakur eta noraezean gabiltza. Beldurrez. Sagar pixka bat ondo etorriko zaigu. Duela hogeita hamar urte hara zer idatzi zuen Jakoba Errekondok. «Sagardo hitza gaur egun ez da edari baten izen hutsa. Sagardoa aipatzeak joera zahar eta berriak dakar-tzagu... Sagardoa ohitura zaharrak dira; txalapartaren oihar-tzunen buelta. Sagardoa, bertsozale guztiak ase eta freskatzen dituen iturria izateaz gain, bertsoa da. Sagardoa azti, sorgin pitargile eta modernoan edaria da. Sagardoa kaletarren inbidia eta baserritarren gutizia ohoretsua da. Sagardoa magia da».

Baina garai-garaikoa dugun gai honek badu esamolde bat bereziki estimatzen dudana. «Beste kupeleko sagardoa». Gauza bat bestelakoa, seko desberdina dela adierazteko modu dotore askoa. Esango nuke ezberdintasuna baino gehiago iradokitzen duela. Norbaiti jaten aparte eman behar zaiola esaten dugunean bezala, baina modu finean eta beste distira batekin. Argibide neketsuetan sartu gabe, hitz gutxitan zenbat azaltzen duen «hori beste kupeleko sagardoa da» esaldiak. Beste izaera edo kategoria bateko zerbaiti aipua egiteko erabiltzen da. Deskribatzen den horren ezaugarriak zehazten hastea baino indar handiagoa dauka beste kupeleko sagardoa dela esateak. Sagardogintzaren bueltan zebilen norbaitek emango zion bada erabilera hori hasiera batean. Bejondeiola!

Hemen da jada sagar mama, gure elikaduraren ama, ona dauka behintzat fama, aurretik baina lana

Nahi adina adibide aurki di-tzakegu. Pandemia garaian Jaurlearitzak neurriak hartzea gauza bat da, baina epaitegiak sartutakoan... hori beste kupeleko sagardoa da. Norbaiti zahar-etxean dagoen bitartean arreta eskaintzen dion senideak beste kupeleko sagardoa probatzen du adineko hori etxean hartu behar duenean. Auzoko elkarteren batean

bizilagunen mesederako kudeaketa lanean aritzea gauza bat da, eta Madrilgo Kongresuan alderdi politiko baten bozeramaile izatea, beste kupeleko sagardoa. Gure ogibide honetan ere, informazioa ematen dutenak daude eta baita 'klik' bakoitzaren atzetik eduki lizunak saltzea helburu dutenak ere. Azken praktika hau ez da kazetaritza, beste kupeleko sagardoa baizik.

Eta egun bizi dugun egoera? Zein ezaugarri aukeratu? Nola azaldu? Ez nekatu, hau beste kupeleko sagardoa da eta.

TEMAS Coronavirus COVID-19, Nueva normalidad (coronavirus Covid-19)



LO + LEÍDO

El Diario Vasco Sociedad

Top 50

- 1 Euskadi busca adelantar el toque de queda a las 18.00 o a las 20.00 horas para evitar un ...
- 2 ¿Qué queda prohibido desde mañana en los municipios en zona roja?
- 3 El Gobierno Vasco no prohibirá fumar en la calle porque «podría ser ilegal»
- 4 De la pedagogía a la multa: controles «rigurosos» de la Ertzaintza y Policías Locales en los municipios confinados
- 5 España sigue marcando máximos con más de 35.000 contagios diarios

1 Comentarios ∨

MÁS NOTICIAS DE DIARIO VASCO



Aintzane Pujana recibió más de seis puñaladas y fue hallada cerca de la casa donde pasó el día 31



El mejor roscón de Reyes de Donostia y Gipuzkoa

SERÁ VERDE O NO SERÁ

GRUPO RED ELÉCTRICA



Recetas para construir un mapa energético seguro y sostenible para Europa

TE PUEDE INTERESAR



Este juego de moda es adictivo

Forge Of Empires | patrocinado



Próstata: un experto español desvela un gesto simple para aliviarla

saludalnatural.es | patrocinado



Aprenda a seleccionar acciones

Fisher Investments España | patrocinado

MÁS NOTICIAS



Descubre el abrigo guipuzcoano «más calentito» del momento

DIARIOVASCO



La Policía mata a tiros a una mujer en Baiona

DIARIOVASCO



Navarra queda confinada a partir del jueves

DIARIOVASCO

recomendado por



Fotos




Padres y niños piden que se reanude el deporte escolar



El temporal en España, en imágenes





📹 La nevada del siglo cae sobre Madrid






📹 'Filomena' deja una excepcional nevada

Vídeos



ERC cree que el 30 de mayo se podrá garantizar el derecho a voto





© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018



[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)